



Honen bidez jakinarazten dizut GEHITU Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteko Koordinazio Kontseiluak, 2003ko abenduaren 10eko bilkuran erabaki zuela

2003ko Latorrizko GEHITU saria hiru Euskal Apezpikuei ematea

gay, lesbiana eta transexualen duintasun pertsonala eta berdintasuna aitortzearen aurka azaldu direlako behin eta berriz. Bereziki, hirurek elkarrekin Izatezko Bikoteen Euskal Legea onartzearen aurka igorri zuten idatzia baloratu da, eta baita Vatikanoko iazko uztailan ezagutzera eman zuen dokumentua, Fedearen Dotrinarako Kongregazio Santuarena, babestu izana ere.

GEHITUK adierazi nahi du bizitza-aukera desberdinekiko errespetuak oinarrizko ideia izan behar duela bai gure portaera gidatzeko eta baita pertsonen heziketan agintea eta erantzukizunak dituzten erakundeen aginduak zuzentzeko ere. Hori dela eta, Eliza Katolikoaren hierarkiak gay, lesbiana eta transexualen errealitatea ulertu behar du, eta bi gizonen arteko edo bi emakumeen arteko maitasuna emakume baten eta gizon baten artean dagoenaren kalitate berarekin onartu behar du.

Gure familiek ezin dute gizartearen portzentaje oso altu batek errespetatzen duen erakunde baten mesprezua jasaten jarraitu. Gay, lesbiana eta transexual katolikoek ezin dute dogma ofizialaren, dotrina errealaren eta beren bizitzaren arteko desadostasuna dela eta sortarazten den kontraesan moralarekin bizitzen jarraitu.

Saria emateko ekitaldi publiko bat egin nahiko genuke laster, eta, beraz, jarriko gara harremanetan zuekin.

Donostian, 2003ko abenduaren 23an

Iñigo Lamarca Iturbe, Lehendakaria